



CESAR PALACIOS (Osasunako jokalaria)

HIRU GOL NUMANCIARI

«Atsegin dut aurkarien areara atzetik iristea, baina inor ez dadila tronpatu, golak ez dira nire eginkizun nagusia»

ZAILA HAMAIAKAKOAN SARTZEA

«Lehia izatea ona da, jokatzeko ez dugunok asteazkenekoa bezalako aukerak aprobetxatu behar ditugu»

LEHENENGO PARTIDUA GALDUTA


«Celtaren aurka lehen jardunaldian galtzeagatik ezin dugu burua makurtu, saiatuz gero garaipenak etorriko dira»



LUIS TEJIDO / EFE

JAVI MORENO (MILAN)

Adina: 26 urte ditu Alaveseko jokalaria ohiak (1974 irailaren 10ean jaio zen).
Jaioterria: Sillan jaio zen (Valentzia).
Kontratua: 2005. urtera arte sinatu du kontratua Milanekin.
Ibilbidea: Bartzelona C, Bartzelona B, Yeclano, Alaves, Numancia, Alaves eta Milan.
Lorpenak: UEFAko txapelkun-ordea. Iazko Espainiako Ligako hirugarren golegilerik onena. Iragan denboraldian Espainiako selekzioan jokatu zuen.



MIREN SAEZ

COSMIN CONTRA (MILAN)

Adina: 25 urte ditu (1975eko abenduaren 15ean jaio zen).
Jaioterria: Timisoaran (Errumania) jaio zen.
Kontratua: 2004. urtera arteko kontratua du Milan taldearekin.
Ibilbidea: Timisoarako Politeknika, Dinamo Bukarest, Alaves eta Milan.
Lorpenak: Errumaniako selekzioan jokatu du. UEFAko txapelkun-ordea izan zen Alavesekin aurreko denboraldian.

'Il amico italiano'

HARREMAN OPAROA. Milanekin dagoen elkar ulertze onak jokalaria berriak ekartzeko aukera eman dio Alavesi

Jon Rejado | **GASTEIZ**

Gaur egungo futbolak geroz eta antz handiagoa du oihan batekin, eta ez bakarrik zela gainean asteburuko entzuten diren astakeriengatik eta ikusten diren kolpe basatiengatik. Talde handiak lasai-lasai *jan* dezake txikia nahi duenean, zela gainean batzuetan, bulegoetan bestetan. Horregatik lagunak lortzea ezinbestekoa da gaur egungo futbol-oihan horretan, eta, lagunak egiteko orduan, berezko dohaina erakutsi du Gonzalo Anton Alaveseko presidentek. Javi Morenoren fitxaketak

sortutako zalapartaz baliatu zen Milanera bidaiatzeko, eta, bertan, aurrelariaren fitxaketa lotzeaz gain, etorkizunean bi taldeen arteko harremanak sendotu zituen. Harreman hori guztiz gauzatu zen Cosmin Contrak Javi Morenoren bide bera jarraitu zuenean. Bulegoetan egindako lan horren etekin zai egotea baino ez zitzaion geratzen Mendizorrotzako taldeari. Eta ez denbora luzez. Milanek Sillako aurrelariaren fitxaketa lotzean, Gonzalo Antonek Arabako Foru Aldundia Saria jokatzeko aukari aparta lortu zen ere. Taldea osatzeko garaia heldu



THOR CASTRO / EFE

FABRIZIO COLOCCINI (ALAVES)

Adina: 19 urte (1982-01-19).
Jaioterria: Cordoba (Argentina).
Kontratua: 2002a arte, Milanek utzita.
Ibilbidea: Boca Juniors, Milan San Lorenzo eta Alaves.
Lorpena: 20 urtez azpiko munduko txapelkuna.

zenean, berriz, Milanek aise erantzun zion Alavesen jokalaria eskariari, eta hainbat izen jarri zituen mahai gainean, bildu-

ma bukatua duen haur batek soberan dituen kromoak jartzen dituen bezala. Coloccini baino ez zen etorri Gasteizera hasiera batean eskainitako jokalaria sortatik. Nolanahi ere, harreman horretaz baliatu nahi dute bi taldeek azken truke bat eginez Dida Mendizorrotzara ekartzeko. Milaneko atezainak ezin du jokatu Italian, zigortua baitago urte batez, eta Alavesen bukatzeko aukerak ditu.

Dinamo Bukarest eta Roma

Alaves eta Milanen arteko harremana sendoa den arren, beste *ezagun* batzuk izan ditu ere Gonzalo Antonek zuzentzen duen klubak. Dinamo Bukarest-etik etorri zen Cosmin Contra, eta talde horrek jokatu zuen Arabako Foru Aldundia Saria iragan urtean. Roma izan da ere Mendizorrotzako zelaian aipatu saria jokatzeko, eta urte bat geroago Ivan Tomicek jokatu zuen zela horretan bertan. Espero dezagun Gonzalo Antonek tamaina horretako lagunak mantentzea, futbol-oihanean babesa izatea ezinbestekoa baita handitzen joateko.

EIBAR

Iazko garaipena errepikatu nahi du gaur Ziarretak «zailagoa izango den arren»

Erredakzioa | **DONOSTIA**

Ziur asko Espainiako Ligako Bigarren A Mailako aurkari zailena denari egin beharko dio aurre gaur Eibarrek. Aurreko astean Murtzian berdinketa lortu ondoren, Ipuruako lehen partidua izango da Atletico Madril-en aurkakoa, eta eibartarrek iazko taldearekin alderatuta 20 jokalaria berri dituzten arren, garaipena eskuratzea orduan baino zailagoa izango dela aurreratu zuen Ziarretak atzo.

«Bakarka teknikoki jokalaria oso onak ditu, eta gainera futbolaz asko dakien entrenatzaile batek bikain zuzentzen ditu», esan zuen Ziarretak. Aurreko denboraldian 2-1 irabazi zion Eibarrek Atleticori, eta aurtun aukera gutxi dituela onartu arren, haiek aprobetxatzen saiatuko direla gaineratu zuen entrenatzaileak. Horretarako bost jokalariko defentsa zelairatuko du, eta euskarri bikoitzean Jauregi eta Solaun. Jorge Cabeza azkenean ez da sartu deialdian, giharretan kontraktura bat jasan duelako.

Eibar-At. Madril

Txapelketa: Espainiako Ligako Bigarren A Mailako bigarren jardunaldia.
Sailkapena: Eibar 12. (puntu 1), eta Atletico 2. (3 puntu).
Eibar: Almunia, Garai, Prieto, Eleder, Rodriguez, Ruiz, Jauregi, Solaun, Aldeondo, Yerai, eta Sukia.
At. Madril: Burgos, Armando, Garcia Calvo, Santi, Carreras, Aguilera, Movilla, Nagore, Stankovic, Alonso eta Torres.
Lekua: Ipurua futbol zelaia, Eibar.
Ordua: 18:30ean (ETB1).



ROSMIL
INDUSTRIAL, S.A.



TORLOJOGINTZA BEREZIA ETA ERRESISTENTZIA HANDIKOA
FINKATZE OSAGARRI GUZTIAK BANATZAILE
BAKAR BATEK BILDUAK

Telefonoak: 94-471 05 19 – 20 / Faxes: 94-471 02 73 - 48150 SONDIKA – BIZKAIA